

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko martxoaren 9a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñerria • Hamahiru gazte taldek antolatuta, bihar Gazte Eguna egingen dute Euskal Jai gaztetxean.

Chögdup Dorje • «Budismoa maitasuna eta errukia da, gizaki ona izatea»

Erasmus nafarrak



• ASIER AZPILIKUETA

European



• ASIER AZPILIKUETA

Aurten Nafarroako Unibertsitate Publikoko 161 ikasle daude Europako unibertsitateetan euren karreretako azken ikasturteak edo proiektuak egiten. Erasmus beka ahalbidetzen du Europako ikasleen joan-etorri hau. Alemaniako Krefeld hirian industria eta telekomunikazio ingeniarietzeko sei ikasle daude hainbat enpresatan karrera bukaerako proiektuak egiten. Ezin erran etxetik kanpo gaizki daudenik, baina gogor egin behar dute lan, batetik, bertako hizkuntza menperatzeko, eta, bestetik, enpresek agindu dizkieten proiektuak ongi egiteko.



Lesaka ●

Zambra aretoa, urte bukaerarako

Ekimen pribatuko aretoan ikuskari mota guztiak bildu nahi dituzte, eta eraikitzen hasiak dira dagoeneko

Lesakako sarreran, Otsango auzoan, izen bereko industrialdearen aldamenean, ekimen pribatuko aretoa eraikitzen hasiak dira egunotan. Eskualde osorako erreferentzia izatea nahi dute, eta, horretarako, ekitaldi aski desberdinak antolatzeko xedea agertu dute antolatzaileek.

Ingurua biziberritzeko asmoz

Zambra aretoa eraikiz bat, Bortziriak eta oro har Baztan-Bidasoako eremua biziberritzeko asmoa agertu dute. Aisialdi eta kultura arloetan izanen duen eragina ez ezik, eskualdeko ekonomian eta turismoan izan dezakeen garrantzia ere nabarmendu nahi izan dute. Gaur egun dauden azpiegitura eta zerbitzuen osagarri izatea nahi dute bultzatzaileek, «haiek ez baitira nahikoa, eta da-

goen eskaintza hobetu egingen baitu». Kulturgintzan eragin nahi dute bereziki, «arlo honetan baitago hutsunerik handiena».

Eraikina diseinatzeko tenore-

an, kontuan hartu dute ekitaldi aski desberdinetarako erabiliko dela, haur ikuskizunak, bertso emanaldiak, kontzertuak, musika mota guztiak, opera, dantza eta bertzelako ekitaldiak ater-

petuko baititu, betiere egitasmoaren bultzatzaileen hasiera-ko xedeari jarraikiz. Eraikina ikuskizun horiek guztiak hartzeko hornitua egonen da, ikus-entzunezko tresneriarik berriekin. Mugikortasuna, ikusmena eta entzumena erraztuko duen eraikina izanen da.

Urte amaierarako amaitua behar duen proiektu honek soka luzea du, hala ere. Lesakako herrian behin eta berriz zabaldu izan da aretoa eraikiko zuten zurrumuru, eta baimen guztiak aspalditik zituzten. Bertzelako arazo batzuek tarteko, hala ere, hasiera data bultzatzaileek nahi baino gehiago gibelatu da. Oraingoan, hala ere, lur mugimenduekin baino ez dira hasi, eta datozen asteetan dago aurreikusia eraikinaren oinarriak eraikitzen hastea. Inguruko errepideetatik sarbide berriak ere eraikiko dira, gaur egungoak bertako baserrietarako pista tikiak baitira. Errepideetik zuzenean sartu ahal izanen da aparkalekura. Nolako egitaraua osatuko duten, horixe da herritarren jakin-minik handiena orain.



Zambra aretoa ireki asmo dute Lesaka inguruan. Goiko argazkian aretoa eraikitzeko lanak. Ezkerrean, aldiz, areto berria iragartzen duen kartela.

● JOSEBA IRAZOKI



→ Jon Abril

HAINBAT OSTALARIREN EKIMENEZ, azken urteotan Lesakan izan diren zurrumurruei aurre eginez, Zambra aretoa eraikitzen hasiak dira. Orain arte zelaia eta baratzea izandako 12.000 metro koadroko eremu batean hasi dira lanak egiten, Otsango auzoko Landa Zelaia inguruan. Eraikinak 2.000 metro koadro izanen ditu, eta 3.000 lagun hartzeko prestakua izanen da, ikuskizunaren araberak. Gainerako eremuan zelaiak eta aparkalekuak tartekatuko dira.

Egitasmoaren bultzatzaileek diskoteka bat baino gehiago eraiki nahi izan dituzte. Funtzio hori ere betetzeko aukera izanen duen arren, bilkurak, hitzaldiak, erakusketak, azokak, kontzertuak, jaialdiak eta bertzelako ospakizunak aterpetu ahal izanen ditu. Taldeentzako entsegu aretoak ere bilduko ditu eraikinak. Proiektuaren bultzatzaileek 500 milioi pezetatik goitiko inbertsioa egingen dutela iragarri dute, eraikinean eta horren inguruetan.

zubian barna

Angelina, Zizurreko morroia

BINGEN AMADOZ



Lau urtetan behin bildutako botoak denetarako dituzte erabilgarri boterean daudenek, edozertarako aitzakia dira agintarientzat. Baita talibanen modura jokatzeko ere. Talibanek harri kulturaren aurka jotzen dute, eta Nafarroan mendeetan bizirik iraun duen gure hizkuntzari, gure altxorrik preziatuenari, bortizki erasotzen diote UPNko gorenko agintariek.

Agintariek aginduak eman eta morroiak prest lan zikina egiteko. Morrontza horretan dabil Angelina Lekunberri Sagües, Zizur Nagusian diharduen irakaslea.

Haren jokabidea ezagutzeari ez da txikia izan Zizurren sorturiko eskandalua. «Zizurren, Angelina anderea, milaka gara euskaldunok eta milaka gehiago euskara maite duten eta dugunok». Xabier Labaien eskola langilearen bitartez egunkarie-

tan zabalduakoa Zizurren bizi garen guztion ahotan egon da eta lur eta zur utzi gaitu eskola bateko zuzendari horren jokamoldeak. Garai zaharretako maisu-maistra haiek etorri zaizkit gogora. Edozeinek asmatuko du ze garaitakoak... Gogora etorri zait duela ez horrenbeste urte Saldiasoko gurasoei seme-alabei erdaraz hitz egiteko eskatzen zien Erronkariko Kanbra maisu hura. Zentzu onaren, zintzotasunaren, intelijentziaren aurka jotzen zuten orduko talibanek eta orduko talibanen morroiek. Ez nuen uste duela urtebete arte nire alabaren eskola izandakoaren zuzendaria horrelako morroi berria zenik.

Gure herri honetan ez dugu erraz ahazten jasandako kaltea. Ezta harturiko ondasunak ere. Nire gurasoek bizitza osan gogoratu zituzten Errepublika garaian izandako irakasle onak. Aitak Pitillasko On Pedro aipatzen zuen behin eta berriz

eta nire aitabirik soroetatik bueltan argizariaren argitan gehiago jakiten erakusten zioten mende hasierako bere maisuak.

Nire aitari, bere belaunaldiko guztiei bezalaxe, Errepublika-ko maisu-maistrek oinarriko euskara erakutsi zioten herrian. Murillo El Cuenden. Orduan ez zegoen zonalderik hizkuntzen auzian eta Tafallaldeko herrietan ere laguntza eman zioten irakasleek gure kulturari, ahal zuten neurrian.

Beste garai beltzagoak etorri ziren gero. Nik ongi gogoratzten ditut makilazo ez merezitako haiek eta Elgorriagako eskolan haur baseritarren negarrak. Haien errua... euskaraz mintzatzea.

Zizurren eta euskararen historia beltzean bada orain beste izen bat tamalez ahaztuko ez zaiguna: Angelina Lekunberri, Murillo el Frutoko maistra, euskara gorrotatzen dutenen morroia.

Azken bi hitz Xabier Labaienentzat. Zizurko gehienak zintzoagoak dira gure hizkuntzarekin eta, ez bairik gabe, zurekin daude, ZUREKIN EUSKARAZ.

Iruñerria • Gazteak euren eremua eskuratzen

Iruñerriko Gazte Asanbladak antolatuta, Gazte Eguna egingen dute bihar Iruñean

Iruñerriko auzo eta herrietako hamahiru gazte taldek Iruñerriko Gazte Asanblada (IGA) berpiztu dute azken asteotan. Eratze batzarren ostean, lehen ekitaldi bateratua biharko Gazte Eguna izanen da.



Iruñerriko hamahiru auzo eta herrietako gazte batzarrek antolatuta, bihar Gazte Eguna egingen dute Iruñeko Euskal Jai gaztetxean. • MIKEL SAIZ

Gure eremua eskuratu lelopean, Iruñerriko gazte taldeetako kideek Gazte Eguna antolatu dute biharko. Egitarau oparoa eratu dute, «gazteria mugiarazteko». «Gaur egun, gazteriak, berea hartu ordez, eskatu egin behar du, baimenak eta diru laguntzak direla medio», adierazi zuen Gazte Egunaren aurkezpenean IGAKo kide batek. «Gure ustez, gazteek ez dute deus ere eskatu behar. Hor kanpoan dagoena gurea da, eta horregatik hartu behar dugu».

Duela zenbait hilabete, Iruñe-

rriko auzo eta herrietako hamahiru gazte batzar elkartu egin ziren, gazteen arazoan gaineko komunikazioa eta koordinazioa ahalbidetzeko. Atarrabia, Burlata, Antsoain, Berriozar, Olatz, Zizur, Uharte, Txantrea, Alde Zaharra, Donibane, Ermitagaña, Sanduzelai eta Arrotxapeako gazte taldeak elkartu ziren. Koordinazio horren lehen fruitua biharko Gazte Eguna da. Egun horretako ekitaldiak Iruñeko Euskal Jai gaztetxean egingen dituzte, bukaerako

kontzertua izan ezik. Barricada, Buitraker, Dank eta Kop taldeen kontzertua Atarrabiako Lorenzo Goikoa kiroldegian izanen da.

«Gazte guzientzako egun handia izatea nahi dugu», azaldu zuten antolatzaileek. «Gazteria mugitzea nahi dugu, kalera atera eta berea dena har dezan. Gazteendako antolatu dugu hau, eta ez dugu deus lortuko lau katu besterik etortzen ez badira. Horregatik, ahalik eta gonbitik zabalena egin nahi dugu». Kontuan izanik IGA sortzeko toki batzarretan denetara 400 gazte izan zirela, eta batzarre orokorrean, 200, biharko egunean gazte anitz bilztea espero dute.

Iaz Espainiako Poliziak Gazte Eguna debekatu bazuen ere, aurtien horrelakorik ez gertatzea espero dute, ekitaldi gehienak gaztetxe barnean egingen direlako. Eta kanpoan egingen dituztenak jai giroan izanen dira. «Kalea denona da, eta ez dugu baimenik eskatu behar kalera ateratzeko», adierazi zuten IGAKoek.

Gazteriaren udal plana
Gazte Eguna aurkezteaz batera, IGAKo kideek Iruñeko Uda-

lean onartu nahi duten gazteriaren plan integrala kritikatu zuten: «Zenbait alderdik gazteriaren plan bat atera dute. Eurek egin dute plana eta onartu nahi dute, gero guri, gazteoi, emateko. Baina hori ez da modurik hobereena gazteentzako plan bat egiteko. Gure aburuz, plana egiteko gazteekin egon behar dute, jakiteko zeintzuk diren gure arazoak eta gure beharrak».

Hori dela eta, IGAKoek gazteen arteko inkesta soziologiko bat egin nahi dute, jakiteko zeintzuk diren benetan gazteen beharrak. «Hori da planari falta zaizkion gauzetako bat», erran zuten. «Planak ez ditu aintzat hartzen gazteen arazoak, ez du langabezia hitz egingen, ezta etxebizitzaz, emakumeaz, ezinduez eta drogez ere. Gai guziak gainera tratatzen ditu planak. Eta, gainera, kostu izugarri handia du. Baina gazteek mugitzeko ez ditugu milioiak behar. Gazteriak bere kasa antolatzeko modua izan behar du».

→ Asier Azpilikueta



Xabier Larraburu

Zero

Gaur goizean Takoneran ibili naiz eta bat-batean Zaldi Eroa marrazkilariarekin egin dut topo. Harrizko banku zahar batean eserita, txoriei botatako ogi papurren poltsa jada husturik, zigarro bat erretzen ari zen, eta ni ikusi orduko berarekin esertzeko gonbita egin dit, eta nik onartu. Hortxe egon gara erretzen, bera bere ducadosarekin (zer usain nazkagarria botatzen duten!) eta ni nire pipa usaintsuarekin, isiltasun osoan, txorien eta haizearen hotsak dastatzen, lasai asko, mututuak. Gero, gogora etortzen zitzaidan bezala jaurtirik, gure aurrean zeuden Jingko Biloba zuhaitzei buruz hitz egin diot, eta gure gainera den miruaren lau edo bost berezitasuni buruz aritu naiz, eta gauza bat bestearekin modu dotore eta didaktotz lotuaz Linaresko Kasparov-Karpov azken partidaz ere zer edo zer, zirriborro batzuk, azaldu dizkiot, eta ondotik, taularen gaineko erreginaren mugimendu boteretsuek gogorarazi didatelako-edo, fisikariak mekanika kuantikoaz berriki ibili izan dituzten bi ideia zoragarriak aipatu ditut, iradokitzaileak zirelakoan. Bukatzeko, behin Egip-ton egon nintzela esan diot, bidaia bat egin nuela alegia, eta, hitz sentikor bezain neurtuak lotuz, Nilo ibaiaren oroimena eskuetan jarri diot; nolabait esateko, hain izan da gorpuztua nire azalpena.

Berak baietz egiten zuen beti buruarekin, eta noizean behin «aaa!» eta «ez nekien» esaten zuen begirune osoz; «zenbat dakizun» ere marmartu du behin edo bietan. Nire aldetik, bere lausenguzko hitzak umilki errefusatu ditut, eta bere gogoetaz galdetu diot (edonorekin zer edo zer ikas deza-kegulakoan) ea zertan pentsatzen zuen azkenaldi honetan eta beste. Berak orduan, kezkatu, azkenaldi honetan inongo ideiarik zein gogetarik gabe bizi dela aitortu dit. Lehengoan Sadar futbol zelaira jaitsi zela eta guzti. Iruditzen zaiola garuna espongiformea duela jada, eta zuloetatik ihesi joan direla buruan zituen kontu guztiak, eta horrela. Eta, aitormen gupidagabe hori entzun ondoren, hantxe utzi dut gaixoa, lurrari begira makurturik, ogi papurren poltsa hutsa eskuetan tolestean zuen bitartean. Ideien falta kutsagarria izan baitaiteke askotan! Hortaz, badaezpada ere, segituan ospa egin dut nire zutabetxo hau idaztera. ●

Gazte eguneko Egitaraua

Martxoaren 10ean, Iruñeko Euskal Jai gaztetxean

10:30: Gazte Egunaren aurkezpena, gosariarekin.

11:00: Mahai inguruak: sexualitatea; aisialdia; gazte lokalak (gaztetxeak, etxabeak); komunikazioa (hedabideak, kontraintformazioa); egungo gazteria (nolakoa da?, zer nahi du?).

14:30: Herri bazkaria: menu begetarianoa eta askotariko menua. Txartelak 700 pezeta balio du. Izena eman zure herri edo auzoko gazte batzarrean.

16:00: Bazkalburukoa trikitixa eta Servicio Secreto hip-hop taldearekin.

18:00: Gin-Sidra jokoa Gazteluko plazan. Ginkana antzekoa da, eta proben ostean baso bat sagardo edan behar da aitzina egiteko.

20:00: Herri poteoa gaztetxetik abiatuta Alde Zaharreko karraketan barna, malabare, trikimailu, tan-tan eta musikarekin.

22:00: Kontzertua: Barricada, Buitraker, Dank eta Kop. Atarrabiako Lorenzo Goikoa kiroldegian.



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

XX. mendeko euskal literatura zaharberritua

Ez dira, milurte berrian egonik ere, Durangoko lurrinak oraino amatatu, euskal liburugintzaz denez bezanbatean bederik, eta asko dira liburu azokarako argitaratu ziren liburuen artean gure arreta merezi izan zutenak; hauen guztien artean legoke Jon Kortazarren *Euskal Literatura XX. mendean*.



Euskarazko liburu gehiegi argitaratzen ez dela, ez-pada irakurle gehiago behar direla irizten zion Xabier Mendigurenek berriki Ordiziako Baga-biga kultur dendaren ixtea dela-eta eraturiko jardunaldietan. Ez zaioke arrazoirik falta, ausaz, alabaina, irakurle den honek, gustatu bezain porrokatu ez badabilelako edo, hamaika liburu dauka hor nonbait metaturik irakur zain. Gaurkoan dakarguna, oster, ez da arrapaladan irakurtzeko horietakoa, eskura hiztegi eta entziklopedien artean edukitzeko esku-liburua baizik.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Literaturako katedraduna den Jon Kortazar Uriarte Mundakan jaio zen, 1955ean. Filologia erro-manikoan doktore, Lauaxetaren olerkigintza izan zen bere tesiaren gaia, Koldo Mitxelena bera epaimahaiaren buru izan zelarik. Doktoretza atzeman eta urtera eman zuen argitara Kortazarrek bere tesia, 1986an hain zuzen, Bilboko Desclee de Brouweren etxearen eskutik, *Teoria y práctica poética de Lauaxeta*. Aurretik ere, Uriarteren *Poesía bascongada dialecto vizcaino* eskuidazkiaren edizioa apailatu zuen tesina, baita 1987an argitara eman ere. Alta, Kortazarren ikerketa esparru hauta ez da XIX. mendean sakonkegi barneratzen, eta XX.eko modernitate aisa bide du gogoko. Horrela ematen digu aditzera Uriarteren lanaren edizioa ondu ostean Zarateren prosa ikertu izanak ere, eta horrela frogatu du bere ondorengo

bibliografiarik gehienak ere. Alde batera uzten baditugu Lauaxetaren lanen taxuturiko edizio kritikoak —Ereinen *Olerkiak*, Labayuren *Azalpenak* eta EEEn *Antzerkia eta Arrats Beran XX. mendeko euskal literaturaren historia*, kritika eta edizio antologikoak dira Kortazarren arrobiak ekoizturikoa. Azken liburua, euskaraz zein galizieraz agertu dena, euskaraz egiten ari den poesiarik berrienaren laginez osaturiko liburua dugu,



ikasleak izaniko Kirmen Uriberen nahiz Castillo Suarez altsasuarraren bertsoak jasotzen direla. Kritika arloan, ordea, besteak beste, *Luma eta lurra: euskal poesia 80ko hamarkadan* liburutzarra atera zigun 1997an, alabaina bere lanik klasikoaren zein aipatuenetakoa *Laberintoaren oroimena* dukegu, Donostiako Barojarenean 1989an estreinakoz eta bigarrenez Ereinekoe 1994an atera zutena Saiopaperak sailean. Azkenik, literaturaren historiari bagagozkio, bi dira, funtsean,

Kortazarrek ateratako liburuak. Alde batetik *Euskal Literaturaren historia txikia* dugu, aipatu Ereinen Saiopaperak bilduma berean 1997an atera zena, Etxeparengandik erromantizismora doan ibilbidea, gutxiz gehien institutu-tuetan erabiltzeko bide den testu liburu soila, ahoko literaturari buruz dakarren zati luzeak aski edertzen badu ere. Bestea, berriz, *Literatura vasca: Siglo XX* liburuki eza-guna da, Etor argitaletxetik 1990ean elki zena, eta lau urte beranduxeago ere berargitaratu dena.

Gaurkoan dakargun lana, hortaz, aipatu azkenaren euskarazko aldaera osatua litzake. Ez da egokitutako itzulpenen honakoa Kortazarrek erabiltzen duen lehenbiziko aldia. Gorago atera zai-gun *Luma eta lurra* horren erdarazko bertsioa iazkoan atera zen *La pluma y la tierra* izenburupean, tamaina tikiagotuan baina. Izan ere, *La pluma y la tierra* huraxe atera zuen argitaletxea bera da orainoan *Euskal Literatura XX. mendean*

karrikaratu duena, Zarag-zako Prames etxea hain zuzen ere, eta Aragoi aldean euskararekiko dezaketen asmo onen zalantzarik ez badugu ere, bistan da sosentxin-txina dela agintzen duena, onerako zein txar-rako. Kasu honetan onerako izan dela bagaude, liburu eder eta mamitsu eskaini baitigute Pramesekoe geure literaturaren erakus-garri. Edozein modutan ere, eta ohi legez, eroslea izanen da finean azken hitza edukiko duena.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Hiri eta herri

IRUINDAR GEHIENOK GURASOAK herrian jaiok ditugu. Haien sortetxean sarritan egonak gaude. Herrian eta jolasean ikusten dugu geure burua jai-gun, asteburu, opor eta uda luzeetan. Haurtzaroko kontuak dira horiek. Baina, oharkabean, lehengusuak, sugandilak, masustak eta tiragomak baztertu eta herrira joateari utzi egin gion. Nerabe bihurtu ginen. Kalekume bihurtu ginen.

Ikastolako lagunekin goitik behera zeharkatzen genuen Iruñeko Alde Zaharra asteburu oro. Gaur egun *pijo*-en topaleku nagusi bihurtu den San Nikolas kaleko Otano tabernan egiten genuen hitzordua larunbat eguerdian baserritar eta *cuenco*-en kontura barre egiteko. Gaztetxo harroko batzuk besterik ez ginen. Iruñekoak izanik, herritarren gainetik geundela iruditzen zitzaigun.

Gauez, berriz, Kale Berriko Malembe taberna orduak ematen genituen garagardoak irensten eta lehen *txirri*-ak erretzen, Leño taldea entzuten genuen bitartean. Gu bai hiritar martxosoak!

Tarteka herriko lehengusuak etortzen ziren bisitan. Haiek eskutik hartu eta *cicero*-ne lanetan ibiltzea egokitzen zitzaigun. Curia kaleko Ttutt tabernara, gazteentzat lokalak eskatzeko manifara, Tijuana in Blue taldearen kontzertura eta Eguzki Irratian egiten genuen irratsaio katastrofikora eramaten genituen. *Laostia* ginela erakutsi nahi genien.

Oharkabean, orainoan ere, heldu bihurtu ginen. Formaldu egin ginen. Etxebizitza baten bila hasi han eta hemen. Batzuek Alde Zaharrean bizitzeko apustua egin dute. Besteek hiriarren inguruko urbanizazioetan aurkitu dute haien aterpea. Herriko lehengusuak, berriz, baserria atzean utzi, ezkondu eta ziudadera etorri dira. Gure arteko ausartenak, gainera, seme-alabak munduratzten hasi dira orain.

Oharkabean, beste behin, Iruñea garai bateko herri handi hura etengabe zabal-tzen ari den hiria da. Hiperrean ordu laurden zain egon beharra dago ordaintzeko; zineman sarrerak lortzea oso zaila da; polizia gehiegi dago bazter guztietan; tabernak jendez gainezka daude beti; ez dago aparkatzeko tokirik inon. Urbanita omen ginen haiek herrira begira jarri gara bat-batean. Haurtzaroko irudiak ditugu buruan: baserri handia, ganbara misteriotsua, sukaldeko tximinia, baratzea, erreka garbia, herritarren patxada, gaueko solasaldi luzeak, iturriko ur txorrotak freskoa, mendira eginiko txangoak.

Herri batera bizitzera joatea erabaki dute zenbaitzuek. Iruñetik gertu zer gerta ere. Egunero joan-etorrian dabilta. Gauerako etxeratzen dira. Hiria ez zuten herritartu nahi lehen modernitatearen izenean. Ez ote dira ari herria hiritartzen orain?

Ziria

• Motxorrosolo •

Ezpilondorenak


MENIA GARAIAZ NORAEZA GAILENDU ZEN DEMOKRATEN ARTEAN, inoiz baino ageriago batzuen diskurtsoaren hutsala. Morenoren aipua da. Bozak gainean ditugularik, hutsaltasunak ez du mugarik ezagutzen. Konparazio batera *ezpilondoren arazoitzea*. Eztabaida maila Hegoaldean gainbehera etorri da oso, are nabariago dena, bozen ingurukoei so eginez.

Chögdup Dorje

TIBETEKO LAMA

«Budismoa maitasuna eta errukia da, gizaki ona izatea»

Karmapa Mikyö Dorje Gulinako Ijurrieta baserrian dagoen Budista ikasketarako eta meditaziorako zentroa da. Bertako zuzendaria da Chögdup Dorje lama tibetarra. Urtero egun batzuk pasatzen ditu hemen, bereziki ikasleekin eta hitzaldiak ematen.



● MIKEL SAIZ

BUDISMOARI BURUZKO HITZALDI horietako bat Iruñeko Larraona ikastetxean eman zuen joan den astean, guztioi irekia. Han harrapatu genuen lama tibetarra.

■ Zer buruz hitz egin behar duzu?

Meditazioaren garrantziaz hitz egingen dut; azaldu nahi nuke meditazioak zer onura ekar diezaiokien jendeari. Meditazioerabakia lehenbailehen hartzeko deia ere egingen diet, azkar pentsatu eta erabaki beharrekoa baita. Izan ere, hemen jendeak oso denbora gutxi dauka libre, eta horregatik, gerorako utziz gero, orduan beranduegi izan daiteke.

■ Diferentziarik ba al dago hemen budista izan edo Tibeten izan?

Diferentziak egon badaude eta nabarmenak dira. Nagusia denbora kontua da: hemen, jendeak nahi izanagatik ere denbora gutxiago daukalako meditazioa praktikatzeko. Izan ere, lana egin behar du janaria eta arropa lortzeko, eta horrek denbora gehiena kentzen dio edonori. Gainera, hemen irakaslearen zain egon behar duzu: lehenengo, guztien artean (asko baitira mendebaldetik bidaiatzen dutenak) zuri hobekien datorkizuna aukeratu behar duzu, a proposena, hark urrats bakoitza irakats diezazun. Gero, hura noiz itzuliko den zain egon behar duzu.

■ Eta Tibetean?

Han monasterioak daukazu. Gainera, mendian zaude, eta han kobazulo asko daude meditatzen joateko. Ez duzu arropa eta janaria arduratzeko inongo beharrik, hango nomadak zorientsu

«Meditazioaren bidez, denon eskura dago lotura guztietatik askatu eta Budarengana heltzeko aukera»

bizi baitira hori dena monjeei eskaintzen, eta beraz, denbora guztia eskain diezaiokazu meditazioari. Dena den, gaur egun hemen ere errazagoa da, mendebaldeko jende gehiagok meditatzen duelako eta lamek ere asko bidaiatzen dugulako. Lehengo baino errazagoa da.

■ Iruñeko zentro honek inolako loturarik ba al dauka Tibetekin?

Ez, ni naiz nire bisitekin lotura bakarra, ni tibetarra bainaiz. Baina zentroak berak ez du Tibetekin inolako loturarik. Ni neu hona natorren bezala, munduko beste zentro batzuetara ere joaten naiz. Askok bidaiatzen dut.

■ Zer egin behar du hemen-go pertsona batek budismoa praktikatzeko?

Buruak egonkorra behar du izan, gauzak garbi daukana. Bere buruaz irudi garbi bat eduki behar du. Badago jendea budismoa *hobby* bat bezala hartzen duena, modan dagoelako soilik, baina hortik abiatzen bada, motibazioa segituan bukatuko zaio, eta horregatik, garrantzitsua da burua garbi edukitzea, eta «meditazioa, hori da nik egin nahi dudana» benetan pentsatzea.

■ Zer da budismoa lama barentzat?

Maitasuna eta errukia, eta gi-

zaki on bat izatea, baina hori zentzuzko izatea besterik ez da, zuzen jokatzea. Milioika praktika daude, baina denak maitasun eta errukian oinarritzen dira. Horretan oinarrituta eta meditazioaren bidez, bakoitza bere burua garbi ikustera heltzen da, eta bakoitzaren burua garbi ikusteko momentu horretan, Buda zeure buruan ikusten duzu. Beraz, maitasuna eta errukia gauzatzeak ematen du Budarengana heltzeko aukera eta bakoitzak bere burua Buda bezala ikusteko bidea. Eta hori eskuragarria da, guztion eskura dago lortzea.

■ Zer esan nahi du horrek, Budarengana heltzeko?

Hori lortzeko esan nahi du lotura guztietatik askatzea, eta baita besteak askatzea ere: emozio eta kontzeptu guztietatik askatzea. Budista izatea bera ere kontzeptu bat da, eta horretatik ere urrundu egin behar dugu, ezin baikara horretara lotu erlijiorik onena gurea dela pentsatuz, horrek besteengandik bereiztera garamatzalako, eta baita haserrera eta amorrura ere; ni garrantzitsua naizela eta besteak ez direla pentsatzera hain zuzen ere, eta hori ere beste mota bateko lotura bat da. Horretatik ere askatu behar ditugu geure buruak.

Bestalde, maitasuna eta errukia ez du bakarrik beste giza-kienganakoa izan behar: izaki guztien ganakoa maitasuna eta errukia landu behar dugu, baita animalia eta intsektu txikienganakoa ere. Eta meditatuta ere egin behar dugu. Hori da garrantzitsua.

→ Arantzazu Zabaleta

soslaia

Chogdup Dorje lama tibetarra da, bertako Kailash mendian jaioa. Han hiru urteko erretiroa egin zuen Rumtekeko monasterioan eta beste bat Bokar Rinpochekoan. Irakaskuntza budista erakusteko gaitasunarengatik da ezaguna Dorje.

Askok bidaiatzen duela dio, bereziki mendebaldean barrena, Iruñeko zentroaren antzeko beste zenbaitetara bere irakaskuntza zabalduz. Oraingoan, hamar eguneko egonaldia egin du Iruñean.

Gulinako Karmapa Mikyö Dorje zentroan 30 pertsona inguruk esku hartzen dute. Horietako batzuk egunero doaz meditatzen, eta besteak hitzaldietara eta ekintza bereziak daudenean. Gainera, zentroak beste egoitza bat du Iruñean bertan, Gartzia Naiarakoa kalearen 1. zenbakian, jendeak Gulinaraino joan beharrik izan ez dezan. Jada 17 urte dira meditazio eta ikasketa zentro hau sortu zela.



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Etorkizuneko janaria

EUROPA OSORA ETA MUNDURA AKASO BAI, baina kutsatu gabeko gure Nafarroara inoiz ailegatuko ez zen behi eroen eritasuna encefalopatia espongiiformea zela ikasi genuenerako, Aezkoa aldean eta Beran gaitzaren kasu batzuk ezagutu dira. Berako kasua bereziki mingarria izan da: behi bakarra baitzuen baserrian eta hura eroa suertatu. Gipuzkoako egunkaririk salduenak agertutako kronika sentsazionalista ez omen da abeltzainaren batere gustukoa izan: zialdoka zebilen behia kamioian sartzeko bi ordu behar izan zituztela zioen egunkariak, baina nagusiak borts minutuz xuxen-xuxen igo etaazienda ibilgailuan lotua zegoela adierazi du.

Eta trabatu gabe eritasun horren izena suelto-suelto hitzetik hortzera erabiltzen genuenean, hara non ailegatzen zaigun sukar aftosoa. Ahoskatzeko errexagoa izanagatik, lehenbizikoak sortu zuen ikara eta ezinegon bertsua sortu du abeltzain sufrituen artean. Gizakiengan ez omen du eraginik, ez omen da Espainiara ailegatuko, baina hasiak dira Erresuma Batuko granjetan zerriak nola erretzen dituzten agertzen dituzten irudiak. Hasiak dira eritasuna Belgika, Frantzia edo Danimarkara ailegatu delako zurrumurruek barreiatzen harat-honatean, hasiak dira aireportu, itsas portu eta mugetan uharteetatik datozen turista, negozio-gizon eta kirolarietaz azpiak egiten (oinetakoak eta autoen zirrikak garbitzen, alegia). Zenbat denborra igaroko da Nafarroan lehen kasua agertu baino lehen? Behi txuletak, bildots saiheskiak, zerri patak, oilasko hegalak... ezin badira jan, zertaz hornituko gara euskaldun haragijaleok?

Edo sulfatoz estalitako tomateak eta maruriak, ongarrri sintetikoak bustitako letxuak eta xinaurrien kontrako botikaz enpo dauden lekak jaten dituzten barazkizale bihurtu beharko dugu? Nora garamatza abeltzaina eta nekazaria gero eta gehiago produzitza behartzen duen gizarte kontsumista honek? Garai bateko baserri autosufizientera itzuliko gara? Edo barazki menestra gustua duen kapsularen ondotik, zerri solo-mo pilula jan beharko dugu, platano esentzia duen txikle postrea dastatu aitzin?

gure aukerak

MUSIKA

- **Iruñea:** The Last Second eta Not Enough taldeek O'Connors tabernan joko dute gaur, 22:30ean.
- **Lodosa:** Bihar, 17:00etan, pilotalekuan Azkoién, Viana, Sartaguda, Lodosa, Tuter eta Tafallako ikastetxeetako ehun bat haurrek parte hartuko dute Nafarroako Haur Kantari Txapelketako lehen kanporaketan, aurtengo Nafarroa Oinez-en barruan.
- **Gares:** Loquillo y los Trogloditas taldea Gares aretoan izanen da bihar, 23:00etatik aurrera.
- **Iruñea:** De Dos en Blues Band taldeak kontzertua emanen du ostegunean, 21:30ean, Terminal tabernan.

KORRIKA KULTURALA

- **Iruñea:** Korrika hainbat tokitan aurkeztuko dute egunotan: gaur Iturraman (17:00, Amaiur) eta Sanduzelain (19:30, auzo elkartea); eta igandean Ermitagañan (18:00, Bartolome Carranza lokaletan). Hiruretan bideoa pantailaratu eta jatekoa emanen dute, besteak beste.
- **Iruñea:** Leihotikan taldeak Arrosadiako San Fermin peñan joko du gaur, 23:30ean.
- **Tutera:** Bihar Numidia, Hijas de Sol eta Faltriqueira taldeek Eloya kiroldegian joko dute, 22:00etatik aurrera.
- **Elizondo:** Bar puerto, bazterreko ahotsak ikuskizuna eskainiko dute igandean Kirmen Uribek, Josu Eizagirrek, Bingen Mendizabalek eta Mikel Urdangarinek, 18:30ean, Arizkunenean.
- **Berriozar:** Ibiltarixanak ikuskizuna eskainiko dute azteazkenean, 20:00etan, eskolan. Iruñeak, poesia eta musika uztartuko dituzte Imanol eta Joni Ubedak, Karlos Aranzegik, Jose Luis Otamendik eta Inigo Aranbarrik.

► **Tafalla:** Ostegunean, Euskal Selekzioaren gaineko mahai ingurua egingen dute zenbait kirolari ezagunek, 20:00etan, kultur etxean.

► **Iruñea:** Zioren taldeak eta Jose Mari Karrere ipuin kontalariak ipuin kontzertua osatuko dute ostegunean, 20:30ean, Niza tabernan.

ZINEMA

► **Iruñea:** Karrikirik antolatu zinemaldiaren barruan, gaur, Zu zeu (Get real) filma eta Usoa film laburra emanen dituzte,

20:00etan, Golem Baiona zinematokietan.

ANTZERKIA

► **Bera:** Igandean, Idoia Sanchezek Ni: Ez naiz hori clown antzezlan eskainiko du, 19:30ean, kultur etxean.

► **Mutilagoiti:** Igandean, Dar-Dar taldeak Alizia mirarien herrialdean haurrentzako antzezlan eskainiko du, 17:00etan, kultur etxeko auditorioan.

HITZALDIAK

► **Bera:** Elkarbizitzarako hezi gaia

hizpide hartuta, gurasoentzako hitzaldia eskainiko du gaur Alberto Cascantek, 19:00etan, Ja-motenean.

► **Burlata:** Gaur, Patxi Telletxeak, Nafarroaren egoera gogoan, 2001 - Hizkuntzen urtea Europan izanen du mintzagai, 20:00etan, Axular elkartearen.

LEHIAKETAK

► **Zangoza:** Abian da Zangoza Hiria II. Pop-rock Lehiaketa. Izen ematea eta maketen bidaltzea martxoak bukatu baino lehen egin behar da. Informazio gehiago, kultur etxean.

JOXE LACALLE



Txanpona nora, begia hara

Ilargia seinalatu eta behatzari so gelditzen dira batzuk. Beste batzuk, ordea, begiratu beharrekoari begiratzen diote; jokoan sarturik daudelako seinale. Iragan larunbateko pilota partidaren, epaileak gora bota zuen txanpona eta pilotarietaz txintxo-txintxo segitu zieten txanponaren itzulipurdiei. Duela bi larunbat, nora begiratu ote zuen Sanz lehendakariak? Corellarrarendako euskarak ez omen du "manifestazio panfletariorik" behar, eta 27.000 lagun ez dira deus 150.000 bozen ondoan. Sanzek, noski, epailearen eskuari begiratu zion, bere eskuari. Argazkiko partidaren, hasierako saka gorriek egin zuten.

Gorriak ikusiko ditugu, bai.